

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko irailak 11 / II urtea / 41.zenbakia

Amen eta Omen



AINGERU EPALTZA

Konparaketak gorrotagarriak izan eta ere, azalez naiz mamiz, Iruñeari ezagun zaion eta hitz guttitan definitzen hain zaila den 'zer' hori usaindu dut beti Gasteizen ere. Halaber, gisako kidetasunak somatu ahal izan ditut, demagun, Laudio eta adibidez Altsasuren artean, edota, konparazione, Oion eta, esaterako, Bianaren artean ere. Distantziak distantzia, soziologia berdintsua, pareko geografia, historia hein batean homologagarria eta antzeko hizkuntz egoera bezalako faktoreen indarra, hain segur ere.

Hori horrela izanik, gogoeta bat baino gehiagorako egokiera eman dit Arabak eta Nafarroak 77 urtetik honat —haiek 'barne', gu 'kanpo'— urratu duten bide ezberdinak. Sineslearen bekaitz gorriarekin hasieran eta fedegabeen saldotik gero eta hurbilago dagoenaren eszeptizismo zuriarekin gero, 'zertaz haiek gu baino baskoagoak?' galdegin izan diot maiz gure buruari.

Jakina, erantzun baliagarriak ikusteko gutti du soziologia, geografia, historia eta hizkuntza aferekin, eta bai ordea 77 eta ondo—ondoko urte horietan han eta hemen burutu ziren patxi politiko ezberdinekin. Hemengoari dagokionez eta konparaketa gorrotagarriekin segituz gero, nere uste apalean, hemen batzuk berantegi arte ez zuten ikasi, demagun, Tafalla eta, adibidez, Erreterria ez zirela, prezeski, gauza bat bera... Bertze batzuk, konparazione, Leitza eta, esaterako Oiartzun hain diferentek ez direla sekula ikasi ez zuten hein berean.

Baina, bistan da, zaila da historia-ren zirrika geldierazten eta orain etortzen hasi dira odolkiak ordainetan. Halako txinoaren mendekua edo.

Egunkariak adierazten dutenari fede emanez gero, Araban gero eta ausartuago dabilta Euskadiko Autonomi Elkartetik berezi nahi dutenak. Ez dakit inporta zaidan ere. Aitzitik, harrigarriena da fenomeno horri ematen ari zaion erantzunak neratako duen musika ezaguna. Batzuk, demagun, Aramaio eta, adibidez, Otxandio elkarren eiterik bat ere ez dutela deskubritu berri dute. Bertze batzuek, aldiz, nabardurarik somatu ez, konparazione, Biasteri eta, esaterako, Bermeoren artean.

Hainbertzenarekin, batzu eta bertzen artean (beren) inbentoa izorratzen baldin badute, izanen da Nafarroan irri ederrak eginen dituenik, eta ez bakarrik UPNko egoitzan.

Zein arraroa euskararik gabe Nafarroa

Aurtengo Nafarroa Oinezeko kantan bezala, Jose Mari Rodriguez Otxoa Hizkuntz Politika Zuzendari Nagusiak hamaika hizkuntzetan kanta lezake hori, hebraieraz hasi eta arameeraz amaitzeko moduan. Baina ez diogu horrelakorik eskatu. Euskararik gabeko Nafarroa arrarorik egon ez da-

din zer egiten duten galdetu diogu Urantziako euskaldun berri honi. Eta Rodriguez Otxoak Administrazioa euskaratzeko plangintzaz, Euskararen Legeaz, Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Agiriaz, euskarazko egunkariaz eta beste hainbat gaiez hitzeging digu.

Barnean

MUSIKA



Hertzainak taldearen etorkizuna argi dagoela dio Garik / VIII

ESOTERISMOA



XXI. mendeko 'sorginek' psikologoen hutsunea betetzen dute / VII

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



'Dos Bardenas para ti' izeneko erakusketa gaurtik aurrera ikusgai egonen da Iruñeko Gaztedi Etxean, irailaren 18a arte, hiriko Udalak antolatutik. Asuncion Marin Murchantekoa eta Jesus Ukar San Martin Unxeko artisten lanak ikus daitezke bertan, Nafarroako zonalde berezi honi buruzko gaiak lantzen dituztelarik.

Cristina García Rodero artistaren erakusketa ikusgai dago Iruñean, Zapateria kaleko udal aretoan, eta irailaren 27a arte iraungo du. 'España oculta' izenburu pean zabaldu zen atzo erakusketa, bertan espainiar biziari buruzko argazki berezi ugari daudelarik. Usadioak, kristau fedea, denborapasak, ekonomia, kultura, dira, beste batzuren artean argazkilariak aztertu dituen gaiak.

Joaquín Resano pintorearen lanak ikusgai daude gaurtik irailaren 27a arte, Lan Kide Aurrezkiak Sarasate Ibilbidean duen aretoan. Iruñean jaiotako artista honek erakusketa ugari egin ditu, bai bakarka bai taldeka, hiriburuan eta Nafarroako beste herrietan, hala nola Estatuko probintzi gehienetan. Esposaketa ikusteko orduak lanegunetan 18.30etatik 20.30etara eta jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara izango dira.

ERRAN DUTE

Itoizko urtegia beharrezkoa da Nafarroan, koordinadorak leku egokiagoa bilatzen badu esaterik badauka».

Miguel Sanz
Nafarroako Lehendakariordea

«Soladutzaren aurkako gerratea irabazi dugu».

Patxi Leone
Intsumisoa

«Lurraldeak lortu duen akordioa lurrikada politiko baikor bat izan da».

Bittor Aierdi
Lurraldeako partaidea


«Isunak ordaindu beharrean gazteek prestazio sozialak egiteko aukera izan dezaten eskatu dugu».

Jose Javier Etxeberria
IUKo zinegotzia

Ertaroan murgilduz

Artaxona ertaroko hiri ospetsu eta garrantzitsu bat zen, eta hau dela eta ezagutzeko erakargarriak izan daitezkeen monumentoak daude. Hiria 'el cerco' delako harresi borobilez inguratutik dago. Barruan ertaroko aztarnak nonahi ikus daitezke: San Saturnino eta San Pedroko eliza gotikoak, 'el cerco' eta hirian zehar dauden etxe eta aitzinak besteak beste. Dena den, erdi aroa baino lehen egindako dolmenenak ere ikusgai daude, Eneitzeko portilloan dagoen dolmena eta Faragorteako mehatza hain zuzen.

Harrizko hiri txiki eta xartmangarri hau ezagutu ondoren, Nafarroak ertaroan izandako ohiartunaren islada den Erriberri-raino abiatzen gara. Errepi-dearen bi aldeetan amaierarik gabeko mahastegi zelaiak ikusten dira. Iraila erribera ezagutzeko denboraldirik aproposena da, eguzkiak ez du hainbeste berotzen eta fruituak umatzen diren unea bait da. Erriberri heldu baino lehen bere jauregiaren dorre lirainak ikusten dira. Hiria



gune kultural nagusia izan zen ertaroan, bertan Europako antzerki zein komiko nagusiak saioak eskaini zituzten. Dena den harrizko kale estuak oraindik gordetzen dute iraganean izandako xarma erakargarri hori. Jaurregi gotiko estilokoa da eta Na-

farroako konkistaren ostean zutik irauten duen gutxienetakoa. Erriberritik hegoeliderantz abaiatuz, Beirera heltzen gara, ardo gorri eta zainzuri nafarrak erosteko aukera ezin hobea. Janari goxo eta osasuntsua hartu ondoren Pitillasera goaz.

ANTZERKIA



Ilargi antzerki taldea El Busto eta Aezkoako Hiriberrin arituko da asteburu honetan, Nafarroako Gobernuak antolatutako Herri Biraren ekitaldien barruan. 'Azer irriak' izeneko antzezlan eskainiko du bi herrietan, bertako plaza edo kaleetan. Bihar, irailak

12, El Busto egongo da eta etzi, igandean, Hiriberrin, Aezkoan.

ZINEMA



'Indiana Jones y el templo maldito' izeneko pelikula ikusteko aukera dago asteburu honetan El Busto herrian, Herri Bira

ekitaldien barruan. Filmazioa atez kanpo izango da, bihar larunbata, irailak 12, eta etzi, igandean, 'No me chilles que no te veo' filma eskainiko dute Aezkoako Hiriberrin, aurrekoa bezala atez kanpoan, hoguei metro karratuko pantaila batean. Ekitaldi hauek, zer esanik ez, dohai-nik dira.

ASTEKO PERTSONAIK

Rafael Moneo



Arkitektoa

Rafael Moneo arkitekto nafarra erakusketa bat zabaldu zuen atzo Nafarroako Pabilloian, Sevillan. Erakusketa honetan Rafael Moneoren obretako argazkiekin batera, Jorge Oteizaren eskulturak ikusgai izango dira. Moneo tuleran jaio zen eta Madriden arkitektura ikasketak burutu zituen. Roman urte batzuk igaro ondoren Madrideko Arkitektura Eskolako maisu bezala lan egiten du. Gaur egun Estatu Batuetako Harvardeko unibertsitatean arkitektura irakasten du. Guzti hau dela eta, mundu osoan ospea duen nafarra da Rafael Moneo.


Roman Kosecki



Futbolaria

Aurrelari poloniarrak ez zuen Azorte handiegirik izan ligako lehen partiduan, eta aldageletara uste baino goizago joan zen ezker sorbalda jasandako kolpe gogor baten ondorioz. Roman Koseckik ezin izan zituen partiduko azken 28 minutuak jokatu, eta horretaz gain datorren igandean ez du El Sadarreko berdegunea zapalduko, oraindik ez bait da erabat osatuta izanen. Kolpeak subluksazioa eragin zion aurrelari poloniarrari ezker klabikulan, eta horrek indar berriak eman dizkio zaletuek poloniarrari egokitu dioten 'Kosika' ezizenari.

Calixto Ayesa



Osasun Sailburua

Calixto Ayesa Osasun Sailburuak esan zuenez «Abotoaren egoera berdin jarraituko du Nafarroan». Madrilgo gobernuak abotoaren laugarren baldintza onartu arren, Nafarroako gobernuaren kontrako jarrera azaldu zuen. Bere ustez, 'ondoezaren' baldintza bizitzaren eskubidearen kontra dago eta aborto librea bermatzen du. Gainera, legearen aldetik arazo anitz ekarriko zituela esan zuen. Nafarroari dago-kionez 25 aborto egon direla esan zuen, COFES erakundeak aldiz 728 emakume abortatu dutela adierazi zuen, hori bai Nafarroako Komunitatetik kanpo.

IKASTAROAK



Irakaslegaiantzat glotodiktika ikastaroa egongo da irailan IKAKo Arturo Kanpion eskualtean, Comedias kalean. Izena eman nahi dutenak irailaren 18a baino lehen eskualtean bertan edo telefonotik.

Irrati ikastaroa hasiko da datorren astelehenean, irailak 14, Txantreako Irratian, Argibide taldeak sortu duena auzoari buruzko informazioa eskaintzeko asmoz. Ikastaroa urriaren 8a arte luzatuko da eta astean hiru egunetan izango da, astelehena, asteazkena eta ostegunetan, arratsaldeko zortzietatik hamar t'erdjetara.

MUSIKA



Enrique Zelaia musikari famatua, Boliviako musika talde bat, Txalaparta eta Altsasuko gaiteroak arituko dira gaur gabean Altsasun, bertako peñak antolatutik. Igandean herriko jaiak hasten dira eta gaurtik hasita badaude ekitaldiak prestatutik, giroan sartzeko nahian.

Tapia eta Leturia, Zois ande Larres eta Estado Indefinido musika taldeak arituko dira bihar, irailak 12, Iriberrin-Aezkoa herrian. Gabeko 12.00etan erromeria izango da Tapia eta Leturiarekin eta beranduago, goizaldeko lauetan, beste bi taldeak arituko dira kontzertua eskainiz.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara.... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.



Eztanda izugarriak lehertaraziko ditu Altsasuko jaiak igandean

A.A. / IRUÑEA

«Jaietako Eztanda izugarriak» hasiera emango die igandean, eguerdiko 12etan Altsasuko jaiak. Jaiak ongi etorria emateko ekitaldi berezi honetan herriar guztiek parte hartzen dute. Erraldioak, Buru Handiak, txarangak, peñak, txistulariak, Elizaga gaiteroak eta herriko dantzariak, hamabiak jotzeko minutu batzuk falta direnean, herriko enparantzaren biltzen dira. Su ziriak zerua zeharkatu eta eztanda egiten duenean, talde hauek, altsasuar guztiekin batera, musika, eta algara alaiak jaurtituz dituzte. Zarata handiagoko izateko, elizako eskilaren metalezko doinu zorrotzek ere ongi etorri bitxi honetan parte hartzen dute. Jendearen burundarekin batera altsasuko ikurriak airezko pusika batzuei esker zerua zeharkatuko du. Honela, bailara zein Nafarroako beste eskualdetako biztanle askok jaien hasieraren berri izango dute. «Txupinazo» berezi joan den urtean egin zen lehendabizikotz eta arrakasta handia jaso zuen, hau dela eta, aurreko erreplikatzeko asmoa izan dute udaltzeko arduradunek. «Eztanda» berezi hau urtero erreplikatu ezker ohitura bixi batean bilakatu da.

Irailaren 13an hasi eta asteaz-

kenerarte luzatuko dira ofizialki, irailaren 16rte alegia. Dena den, parrandazaleek ostirala 18rte juerga jarraitzeko aukera izango dute. Herriko peñak bi egun hauetarako egitarau berezi bat prestatu dute: goizean argisoinuak, eguerdian salda beroa eta «bajadica» edo jeitsierak arratsaldeko zortziretan. Jeitsierak burutzeko, altsasuarrek he-

Play—back lehiaketak arrakasta handia izaten du beti. Aurtengoa hilaren 16an izanen da, Altsasuko plazan.

herriko enparantza batean biltzen dira eta herri zeharkatuz beste puntan dagoen enparantzara joaten dira. Bidean gazte eta adintsuek betiko abestiak kantatzen dituzte patxaran eta garagardo tragoxkak edaten dituzten artean.

Altsasuko udaltxeak galdutako zezen zaletasuna berreskuratu nahi du aurtengoan. Hau dela eta, entzierroaren ibilbidea eta

ordutegia aldatu dira. Ibilbideari dagokionez, enparantza karratu bat egingo dute, honela, betizuen korrikak ikustea errezagoa izango da. Ordutegiaren kasuan, egun baten goizeko zazpiretan, hurrengoan hamaiketan eta hirugarrenean arratsaldeko bostetan.

Haurrek ere jaietan gustura egoteko aukera izango dute. Irailak 14 astelehenean Zulamalak karregi enparantzaren saio berezia izango da: Gomazko Gazteluak, Kartsak eta zezen makanikoa hain zuzen ere. Dena den hau ez da beraientzan antolatzen den ekitaldi bakarra. Irailak 15ean Gurasoen Elkartek joku berezi batzuk antolatuko ditu eta bertan ahalik eta partaidetza handiena lortzea espero dute. Egun berean baina arratsaldeko sei t'erdietan Trial—sinen erakusketa bat ikusi ahal izango dute, gainera saio honetan OT PI sailean munduko txapeldunak bertan izango direnez, bere sinadura lortzea posible izango dute. Irailaren 16an eta herriko jai ofizialak amaitzen dira eta hau dela eta udaltxeak Play—back lehiaketa bat antolatu du. Norgehiagoko honetan haurrak eta gazteenekin batera, helduagoei partehartzea espero da. Lehiaketa Altsasuko enparantzaren burutuko da, baina eguraldi eurtsua egin ezker Burunda Pilotalekuan izango da.

Erraldioen aurkezpenarekin hasiko dituzte Zizurtarrek herriko jaiak

ZIZUR NAGUSIA

Bihar larunbata hasten dira Zizur Nagusiko jaiak, asteazkena arte iraungo dute eta egun horietan ekitaldi ugari egongo dira herrian, musika desberdina, kirola, artesania, lehiaketak, eta abar luze bat. Baina aurreko badago berrikuntza garrantzitsu bat, beste batzuen artean, herriko Erraldioen aurkezpena, hain zuzen. Bihartik aurrera Zizurtek ere izango du bere konparsa, lau erraldio osatzen dutena.


Jaien antolatzaileek pozez beterik zeuden aurkezpen honekin, arrakasta handia izaten bait dute erraldioek jendearengan. Bi bikote aurkeztuko dira, bata herriko Galtzagorri taldeak egina eta bestea Zizurgo kontzejuak enkargatu zuena. Lehendabizikoa Eguzki eta Ilargiaren irudiak errepresentatzen dituzte, eta bigarrenak inguruko «Mayordomoak» dira. Bihar goizeko hamaiketan izango da aurkezpena, musika eta txarangekin ibilbide bat egingo bait dute.

Ordu berean, aurreko berria den beste ekitaldi bat burutuko da, Pankarten Lehiaketa, alegia.

Kontzejuaren erakusketa moduan jarriko dira txupinazoaren aurretik eta epaimahaikideak bertara hurbilduko dira beren botuak eman eta sariak banatzeko. Beraz, etxafuegoa bota aurretik badaude jaiak giro-giroan jarriko dituzten ekitaldiak herrian, eta hamabietarako herriko plaza bete beterik egonen da, festaren hasiera ofizialaren zain.

Aurreko berria eta aurrekoan ohitura bihurtu nahi duten ekitaldi Txontxongiloak dira, haurrak eta ez hain haurren pozerako, seguruaski. Euskaraz eta erderazko lanak antzeztuko dituzte, «Gorakada» eta «Retablo de Figurillas» taldeekin.

Bost egun hauetan, ekitaldi gehiago ikusteko eta partehartzeko egonen dira Zizurren, herri kirolak, artesania erakusketa, haurrentzako jokuak, behiak, eta abar luze bat. Eta ezin da ahaztu herrian aspalditik duten ekitaldi bat, hau da, musikaren azken saioa bukatzen denean ohizko «kaldiko» a edatea, bertan dantzan ibili diren guztiek edatea. Haurrentzat era horrelako zerbitzu badago, baina goizetan, hamarretan txokolatea eskaintzen bait diete.



Zezenketak nagusi Zangotzan

A.A. / IRUÑEA

Eguerdiko hamabiak jotzeko hamar minutu falta zirenean Zangotzako udal enparantza jendez gainezka zegoen eta su ziriak ez-tanda egin duenean, algara eta alaitasuneko ohiauak nagusitu dira. Zangotzako Udala Banda, Gaiteroak eta txarangak hiriko karriketatik barrena abiatu dira, gazte, heldu eta haurrekin batera. Urtero bezala aurreko haurrek beraie «txupinazo» ospatu dute eta eguerdiko ordu batetan txalero txikia jaurtiki dute.

Zangotzako jaietan zezenak nagusituko dira. Egunero jaietan toreatuko diren zezenak askatuko dituzte, honela herriko gaz-

teek zezenen aurrean jolasean ibiltzeko aukera izango dute. Aste osoan zezenketak egongo dira eta hauen artean larunbatekoa aipagarriena da. Bertan Paquiro, Sergio Sanchez eta Felipe Martins toreatzaileak arituko dira.

Arratsaldeko, Zangotzako Gaiteroak Udaletxeko «Las Arcadasen» izango dira aintzinatik datorren ohitura bati eusteko asmoarekin: dantza herrikoiena alegia. Egunero erreplikatu den beste ohitura bat «La subidica» eta «La bajadica al prau» izango da. Herriarrek soinu ateratzen duten gailuak eskutetan hartuz «prauraino» igo eta jetsiko dira eta bidean ahalik eta zarata gehien ateratzen ahaleginduko dira.

Hizkuntz politika aztergai

Jose Mari Rodriguez Otxoak latina irakasten zuen Barañaingo Institutuan iazko urrian Hizkuntz Politikako Zuzendari Nagusi izateko deitu zutenean. Urantziar honentzat mundu ezezaguna zen, baina «arriskatzekak merezi zuela» eta baiezkoa

eman zion UPNren eskaintzari. Administrazioan sartu aurretik bere bizitzaren ardatza ikasketak izan dira. Salamancan Teologia egin ondoren, Erroma, Jerusalem, Bartzelona eta Estatu Batuetan osatu zituen ikasketak. Joan etorrietan, emazteaz gain hiz-

kuntz ezberdinak aurkitu zituen eta bere egin ditu hebraiera, arameera, arabiera, alemanera, ingelera, frantsesa, italianera, grekera eta latina. Duela zazpi urte, 50 zituela, euskarari ekin zion eta hara hor Zuzendaritza Nagusira iritsi dela.

«Hizkuntz Politika ez da ghettoa»

A. UNANUE / IRUNEA

EGUNKARIA.— Zure izendapena azkenetakoa izan zen. UPNk zailtasunak izan zituen euskal munduan konfidantzazko norbait aurkitzeko?

JOSE MARI RODRIGUEZ

OTXOA.— Egia esan, ez dakit zer nola izan zen hautaketa. Niri urrian deitu zidaten, Barañaingo institutuan irakasten ari nintzelarik. Piska bat arriskatzekak merezi zuela pentsatu eta baiezkoa eman nuen. Ez naiz alderdiko kide, baina, antza denez, konfidantza eskaintzen nien.

EGUNKARIA.— Zer aurkitu zenuen Zuzendaritza Nagusian eta zein da zure lehen urteko balantzea?

OTXOA.— Badakizu Hizkuntz Politika Zuzendaritza berria dela, 1989 urtekoa. Hemen hutsetik hasi zen jendeak izugarrizko meritua du, nahiko zuzendaritza berezia bait da euskararen inguruko edozerk hartzen duen kutsu politikoagatik. Zaila da jendea gustura edukitzea: batzuentzat urrunegi zoaz, besteentzat, aldiz, motzegi gelditzen zara. Ni iritsi nintzenean programak ongi taiututa zeuden eta gehienekin aurrera segitu dugu. Azken urteko ekimenik azpimagarriena, niri iritiz, lanpostuetarako euskararen ezaguera eskatzeko konpromezua izan da. Euskararen Legea indarrean sartu zenetik

puntu hau ez zen ukitu, baina iragan otsailean hitzarmena sinatu genuen ia sindikatu guztiekin konpromezu hori hitzez hitz bete zedin lortzeko.

EGUNKARIA.— Eta zer nolako erantzuna izaten dute zuen proposamenek Gobernuko gainontzeko Sailetan?

OTXOA.— Aipatu dudana lanpostuetarako plangintza oraindik proiektua besterik ez da eta ez dakit zer gertatuko den, baina gaurdaino ez dugu inolako arazorik izan. Hizkuntz Politika Zuzendaritza ez da ghettoa, Gobernuan gaude eta ezin dugu Gobernuarena ez den politikarik egin. Gauzak bultzatzen ditugu, agian noizbait geldiaraziko gaituzte, baina beldurrik gabe jokatzeko dugu. Beste Sailei dagokienez, hezkuntzan adibidez ez dugu eskumenik baina elkarlanean aritzen gara Hezkuntz Sailarekin. Elkarrekin egin dugu matrikulazio kanpaina eta aurrikuspen guztiak gaituzte ditugu. Erriberako zenbait herritan, esate baterako, %50ek A ereduak aukeratu dute.

EGUNKARIA.— Eta goi mailako agintarien jarrera? Juan Cruz Alliren keinu euskaltzaleek badute isladarik?

OTXOA.— Allirenak ez dira keinu hutsak. Sentsibilitate pertsonala du euskararekiko eta hizkuntz politika koherentea egiteak arduratzen du. Ez dugu aipatzeko trabarik aurkitu, esan bezala, Go-



Hizkuntz Politika Zuzendaritza hartu aurretik, Otxoak latina irakasten zuen Barañaingo Institutuan. JOXE

bernuko parte garelako. Eta gizartean ere nabaritzen da euskara bere kutsu politikoa galtzen ari dela. Ez dago garai bateko kris-pazioa. Normalizaziorantz goaz, ez euskararen erabilpenaren normalizaziorantz bakarrik, jarreraren normalizaziorantz baizik. Informazioak eta ohitura demokratikoek aldaketa nabarmenak eragin dituzte. Alderdikeria lekuz kanpo dago Hizkuntz Politikan. Euskararen motorra martxan dago eta ez dago hori gelditzeko gauza izango denik.

EGUNKARIA.— Euskararen Legea sei urte betetzera doa. Zer irizten diozu hiru eremuen siste-

mari?

OTXOA.— Bi hizkuntzen koofizialtasuna zonifikatua egotea onar dezaket, beti ere zonifikazioak euskara sustatzeko ahaleginak eragotzen ez baditu. Oztipoa izanez gero, negatiboa litzateke.

EGUNKARIA.— Eta urtebeteko jarduna ikusi ondoren, oztipoa dela uste duzu?

OTXOA.— Guk promozio lanetan ez dugu eremurik bereizten. Eskakera guztiak erantzuten ditugu, nondik datorren begiratu gabe. Hezkuntz arloan arazo gehiago dituzte, konplexuago bait da. Burlatan, esate baterako, euska-

razko irakaskuntza aukera deza-kezu, eremu mistoan dagoelako, baina Aranguren ez.

EGUNKARIA.— Beraz, herritarren berdintasuna ez da errespetatzen, eremu ez euskalduneko nafarrek eskubide gutxiago dituztelako, ezta?

OTXOA.— Eskubide gutxiago ez, baina bai arazo gehiago. Dena den, azaldu berri den Gutxiengo Hizkuntzen Europako Agiriak administrazio zatiketek hizkuntzen garapena ezin dutela oztopatu dio. Beraz, baliteke legea aldatzeko magultasun gehiagorekin jokatzeko.

EGUNKARIA.— Eta zeure esku

Europako Agiriaren «izpiritua»

A.U. / IRUNEA

EGUNKARIA.— Gutxiengo Hizkuntzen Europako Agiriak aurrerapausurik dakar?

OTXO.— Agiriak gorā behera handiak izan ditu, 23 estatuek sinatzeko modukoa izan zedin. Magultasunez jokatu dute: exigentzi baxuenetatik hasita, aukera anitz eskaintzen da maila gorenara iritsi bitartean. Espainiaria dagokionez, arazorik gabe onartuko du autonomi askok Europako Agiriak dioena aise gainditzen dute eta. Nafarroarentzat, Agiriaren gomendioak hitzez hitz betetzeak baino eragin gehiago izan dezake bere izpiritua. Ikuspegi probintzianoa alde batera utzita, hemen ditugun arazoak beste 23 estatu eta 40-50 hizkuntza ukitzen dituela ikusi

Agiriak hartutako erabakiak eta jarrerak aldarazi ditzake.

ahal izango du jendeak. Agirian ez da koofizialtasuna aipatzen, hizkuntzak berreskuratu eta errekonozitzeko premia baizik. Halaber, hizkuntzak ez baztertzea baino gehiago eskatzen du, horien aldeko ekintza positiboak alegia.

EGUNKARIA.— Agiriak finkatzen dituen maximoerik errepertutuz gero, Nafarroak betetzen dituzte?

OTXOA.— Eremu euskaldunak bai, baina eremu ez euskaldunak

ezetz esango nuke, zenbait arloetan behintzat. Agiriaren edukia arloz arlo zehaztuta dago: zerbitzuak, hezkuntza, komunikabideak... Nafarroa osotasunean hartuz gero, Agiriak hezkuntzarako gomendatzen duena ez da betetzen. Komunikabideei dagokionez ere aurrerapausua izan daiteke. Esate baterako, gutxiengo hizkuntzak baliatzen diren irratiei lizentzia emango zaiela esaten du argi eta garbi. Era berean, hizkuntz bera erabiltzen duten gainontzeko herrietako irratia eta telebistaren jarduna jasotzea ahalbidetzeko esatzen du. EITBk horri eutsi diezaioke, Euskalerria Irratiak aurrekoari bezala. Ildo horretatik, Agiriak garai batean hartu ziren erabakiak eta oradindik somatzen diren jarrerak aldarazi ditzake.

EUSKARAZ

ARABAN

Erribera

OION Sorkunde kalea, 4 - (941) 11 00 87
BIASERI Berbeña z/g
BIANA Ikastolan
LAPUEBLA Ikastolan
Kantabriako euskaltzagia Udalatxea
GAZTEIZ Eusk Errege katolikoa, 15-C - 28 89 22
PINTO Eusk Pintoreria, 74 - 28 97 80
ZALDIARAN Eusk Zaldian Plaza, 18 - 24 49 05

NAFARROA

Irurri

ARTURO KANPION Comedias, 14-4 - 22 22 46
ATARRABIA BURLATA UHARTE Mayor, 67 - 12 04 77
BARANAIN Sahats Euskaltzagia - 17 68 68
IPES San Miguel, 8-2 - 22 59 91
(ARANTZA, IGANTZI, ETXALAR, ZUGARRAMURDI, SARA)
BERA Herriko Etxea - 63 11 05
LESABA 63 77 96
Malerreka (ELGORRIAGA, DONEZTEBE, SUNBILLA) 45 15 55
(LEITZA - GOIZUETA)
LEITZA Udalatxea - 61 07 76
LEKUNBERRI Udalatxea - 50 42 07
ETXALEKU Udalatxea - 50 30 67
JAUNTZARAS Udalatxea - 50 31 03

BARNETEGIAK

MATXINBELTZENE (Lesaka) 63 77 96
MENDAU (Doneztebe) 45 15 55

MATRIKULA ZAITEZ!

Jantziago euskaldunago

ikas eta ari



Hizkuntz politika aztergai

egonez gero, Legea aldatuko zenuke?

OTXOA.— Nire iritzi pertsonalak ez du garrantzirik eta, gainera, aise asma daiteke. Ez dago ezer baztertzetik, une interesgarria bizi dugu eta. Gobernua minorian dago eta oposizioak mozioren bat aurkeztu lezake, edo Gobernu berak jarrera aldatu. Hala ere, us-teu dut Legea bezain inportantea dela gizartea. Nafarrak euskara-ren balioaz jabetzen badira, aurrera egingo du. Euskara ez dugu legez salbatuko.

EGUNKARIA.— Legea behar adina garatu al da?

OTXOA.— Ez, eta sentitzen dut, osotasunean garatuz gero aski

den ikusi ahal izango genukeelako. Baina ez da horrela izan, ez dakit denbora edo bi-tarteko faltagatik edo boron-daterik ezagatik.

EGUNKARIA.— Harremanak dituzue EAEko Hizkuntz Politikarako Idazkaritzarekin? Eta nola zaude-te haien aldean?

OTXOA.— Harremanak ezin hobeak dira eta ez pertsonalak bakarrik, proiektu amankomunak ditugu eta. Elkarrekin sinatu genuen UZEIren hitzarmena eta Mari Carmen Garmendia ere hemen izan da, Oinarriak taldeak antolatutako mintzaldietan. Haiek ezagunagoak dira, baina sakonean ez dut uste okerrago gaudenik. Aurrekontuari dagokionez, gurea handiago da, baina kontutan hartu behar da guk ere zerbitzu gehiago ditugula gure gain.

EGUNKARIA.— Aurrekontua aipatu duzunez, gastu publikoen murrizketa igarriko al du euskarak?

OTXOA.— Jakina da egoera eko-

nomikoaren ondorioz aurrekontu guztiak murrizten ari direla. Dena den, baikorra naiz, euskara gaietan Parlamentuak sentsibilitate berezia erakutsi izan du eta. Gainontzeko Sailei urtetik urtera aurrekontuak murrizten dizkieta. Zuzenarritza honek, beriz, izugarritzko igoera izan zuen iaz, ia 200 milioi pezetakoa. Aurtengo aurrekontua 727 milioi pezeta (36 milioi libera) izan da eta behera ez duela egingo espero dut.

EGUNKARIA.— Eta euskararen munduan mugitzen diren taldeekin zer nola moldatzen zarete?

OTXOA.— Horiekin EAEn baino lankidetzat gehiago dugu, ziurre-

Hizkuntz Politika Zuzendaritza ez da ghettoa. Gobernuan gaude eta ezin dugu Gobernuarena ez den politikarik egin. Gauzak bultzatzen ditugu eta agian noizbiati geldiaraziko gaituzte, baina beldurrik gabe jokatzen dugu.

nik guk azpiegitura gutxiago dugulako. IKA, AEK, Oinarriak eta talde guzti hauek izugarritzko lana egin dute baliabide gutxiarekin eta horien beharra dugu, jasotzen ditugun eskaera guztiak ezin bait ditugu geure kabuz asetu. Elkarlanean aritu izan gara eta bide horretatik segitzeko

asmoa dugu.

EGUNKARIA.— Euskara «ondare historiko eta kulturala» dela azpimarratzen da sarritan. Badirudi Nafarroako Museoa jarri nahi dutela. Ez al da ahazten komunikazio tresna dela?

OTXOA.— Badakizu denak hitz politen lagun garela, baina uste dut nafarrek gero eta normaltasun gehiagoz onartzen dutela euskara eguneroko gauzetan erabiltzea. Begi txarrez ikusten dutenei, Arguedasez gaztelaraz ez dakien medikua onartuko luketeen galdetzen diet. Noski ezetz, eta Leitza ere ez daukate zertan onartu beharrik euskaraz egiten ez duen norbait.

Administrazio elebiduna xede

A.U. / IRUNEA

Euskararen erabilpenari dagokionez nafarrek Administrazioaren aurrean dituzten eskubideak eremuzka zehazten ditu Euskararen Legeak. Horrela, eremu euskaldunean Administrazioarekin eduki beharreko harreman guztietan euskara erabiltzeko eskubidea dute herritarrek; eremu mistoan, beriz, euskaraz zuzentzeko eskubidea dute, baina ez da bermatzen hizkuntza berean erantzungo dietenik eta eremu ez euskaldunean, are gutxiago.

Kontutan izanik Administrazio Publikoa ia osotasunean hiriburuan dagoela eta Iruñea eremu mistoan sartzen dela, neketsua baino ezinezkoa gertatzen da zerbitzu publikoak geure hizkuntzan jasotzea. Hori dela eta, Hizkuntz Politika Zuzendaritzak astindua eman nahi dio gai honi. «Administrazioan euskarazko zerbitzu osoa lortzeko lehentasuna du —Rodríguez Otxoaren esanetan—. Sailez Sail eta pausoz pauso, baina lortuko da».

Hasteko, Zuzendaritzak Sail bakoitzean zenbat funtzionario euskaldun behar diren zehaztu du. Plangintza Miguel Sanz lehendakariordeari luzatu zitzaion uztaillean eta Gobernuak izango du azken hitza. Oraingoz Osasunbideari ekin dio Zuzendaritzak. Horren atzetik suhiltzaileen eta Gizarte Ongizatearen txanda helduko da.

Administrazio elebiduna errealitate noiz bihurtuko den ez daki Rodríguez Otxoak: «Txostenak eta ikerketak amaitzeko urtebeteko epea jarri dugu, baina horiek gauzatzea Gobernuaren eskuetan gelditzen da. Gainera, nahiko zail izango da proposatzen dugun guztia onartzea».

Funtzionarioak euskaratzeaz gain, dauden euskaldunak postuz



Rodríguez Otxoak 50 urte zituelarik ekin zion euskara ikasteari. JOXE

aldatzeko aukera aztertzen ari dira Hizkuntz Politikakoak. «Euskaldun zaharren zein berrien bila ibili gara, jendearekin harremana eskatzen duten lanpostuetara aldatzeko».

UDALETAKO EUSKARA ZERBITZUAK

Dena den, zerbitzu publikoak ez dira Iruñean bukatzen. Hogeita udalek euskara zerbitzuak eskaintzen dituzte eta horien esperientzia «emankorra» izan da, Rodríguez Otxoaren esanetan. Euskarazko teknikarien etorkizuna zehaztu beharra dago,

ordea. Zerbitzu iraunkorrak izatekotan, udalek beren gain hartu beharko dituzte, baina udal guztiek ezin diote aurre egin horrek dakarren kostu ekonomikoari.

Apirilean udaletako ordezkariak bildu ziren eta gerora batzorde bat sortu da —Leitza, Burlata, Sakanako Mankomunitatea, Aezkoa eta Zizur Nagusia, besteak beste, bertan direlarik—. Zerbitzu hauekin gertatuko dena oraindik airean dago, baina Rodríguez Otxoak ziurtatu duene, «Gobernuaren aldetik behar bezalako erantzuna izango dute».

«Euskarazko egunkariarekin zorretan gaudelako gure sostengua merezi du»

A.U. / IRUNEA

«Nafarroatik euskarazko egunkari bat bultzatzea ezinezkoa izango litzatekeelako, zorretan gaude EUSKALDUNON EGUNKARIArekin —dió Rodríguez Otxoak—, euskarazko egunkariak, EITB eta 'Argiarekin' batera, Nafarroako euskaldunen informazio eskubidea gogobetetzen dute eta eskertzekoa da».

Ildo beretik, euskarazko egunkariak erakundeen laguntza jaso beharko lukeela uste du Hizkuntz Politika Zuzendaritza: «Badakigu hona ez datorrela etekin bila, guk behintzat zerbitzu

EUSKALDUNON EGUNKARIAK, EITB eta 'Argiak' bezala, Nafarroako euskaldunen informazio eskubidea gogobetetzen dute. Bere lanak mesede egiten ditu eta horregatik uste dut erakundeen laguntza merezi duela. Gurea behintzat badauka.

gisa dakusagu, mesede egiten digu eta horregatik merezi du erakundeen sostengua. Gurea badauka eta horri esker kaleratzen da ostiralero NAFARKARIA. Ez dakit zenbat ale banatzen diren Nafarroan edota gure diru laguntza nahikoa den, baina positiboa deritzot kalera ateratze soilari».

Era berean, Euskal Irrati eta Telebista eragozpenik gabe jaso ahal izatea ezinbestekotzat jotzen du Rodríguez Otxoak. Honen esanetan, «Nafarroak nekez eduki lezake telebista propioa, berdin da euskaraz ala gaztelaraz. Hori dela eta, neurri gabe esker-tzen dugu EITB izatea, esperientzia eta duintasuna dituelako».



Jatorriz Jamaikakoa den estatubatuar batekin ezkontuta dago. JOXE

Gazteendako Zokoa

Amiltxori txikia

Ixobrychus minutus
Migratzailea da
Zonalde hezeetan bizi
da
Nafarroan urriak

Aintziren ertzeetan
nagusiki.

Amiltxori txikiaren lumak sexua eta adinaren arabera ezberdinak dira: arraren bizkarra eta burua beltzak dira eta emearenak aldiz arre ilunak. Bai arra, bai emea hegalean gainean zikin adierazgarri bat dute, hori argi koloreoa. Beste ezaugarri amankomun bat azpiko aldea okre kolorekoa daukatela da. Ankak handiak eta berde antzekoak dauzka, hau dela eta «trokolo» antza dauka. Moko luzea, zorrotza eta zuzena.

Landaretza artean trebetasun handiarekin mugitzen ohi da. Kabia lurrean egiten du, beti ere, ibai, aintzira edo itsaspaduren inguruetan. Zonalde hauetan harapatzen dituzten intsektu, xomorro, anfibio eta arrain txikiak elikatzen dira. Ugalketaren menentuan kabia zabaltzen dute eta lautik seira bitarteko harrautz txuriak txitotzen dituzte. Txitak kabian astebete igarotzen dute, gero landaretzetik ibiltzeko prest daudelarik.

Amiltxoria bakarka agertzen da gehienetan, batzutan bikoteka edo talde txikietan biltzen dira. Migratzailea da, uda eta udaberria Europan igarotzen ditu eta negua heltzean dagoenean Afrikara abiatzen da.

Nere Joxepa izeba (II)

LEIRE RODRIGUEZ

Eultza I.P. 7.maila

Sendagilearengana eramane genuen eta sendaturik zegoela esan ziguten Etxera eramane genuen ez dakit zergatik baina dena hausten eta puskatzen hasi zen. Gure uzte estula haren errua izan zen. Ordudanik txorua zegoela uzte genuen eta eroetxe batetara eramane genuen bi urte zituenen. Ez dakit ezer berataz, ez dakit oraindik eroetxean dagoen, ez dakit atera den, ez dakit ezer. — Esan zuen nire amak. Nik benetan harriturik nengoen eta honela esan nion:

— Ikusten dut zure senideetaz asko kezkatzen zarela, esaidazu non dagoen eroetxe hori eta nire izeba horren izen—abizenak.

— Joxepa Domingez de Villanueva, izer horrekin utzi genuen Elizondoko eroetxean.

— Eta zergatik aldatu zenioten abizenak? Hoiek ez dira zure abizenak.

— Ez genuen nahi jende guztiak jakitea Joxeparekin gertatu zena.

— Goazen etxera mezedez, kalean utz nazazu, laster joango naiz etxera. — Nire ama konforme zegoen, baina ez zekien egin behar nuena. Nire etxetik bi kaltetara utzi ninduen. Eta handik, ni, autobus geltokira joan nintzen eta Elizondorako txartel bat erosi nuen. Ordu laurden bat barru ateratzen zen autobusa. Pipa poltsa bat erosi nuen, eta nahiko urduri nengoen. Ordu laurdene pasa eta autobusa hartu nuen. Ordu bat pasa eta Elizondora Heldu nintzen. Nahiko lasai nengoen, autobusan burukada bat bota nuelako. Jendeari galdetu nion ea eroetxea non zegoen. Herriaren inguruetan zegoen. Haruntz joan nintzen, arratsaldeko zortzirak ziren. Eroetxea ikusten zen: haundia eta kolore grisekoa zen, lehioz beterik zegoen, eta hauek heziz beteta. Bildurra ematen zidan baina aurrera jarraitu nuen. Ate haundi bat zegoen sarrera bezala, indarra eduki behar zen ate hura irekitzeko. Sartu eta



neska eder bat niregana etorri zen.

— Zer nahi duzu? — esan zidan.

Joxepa Domingez de Villanueva hemen dagoen jakin nahi nuke. — Oraintxe zetorrela esan zidan. Hamar luze minutu egon itxotzen egon nintzen, neska hura itzuli zen:


— Hemen ez dago horrela deitzen den andrerik.

— Eta hemen egon al da? — Galdetu nion urduri. Neska berriro joan zen. Lehen baino arinago etorri zen eta baietz esan zidan:

— Bai. Hemen egon zen baina orain dela hogeit urte edo joan zen. Hori da dakidan guztia. Ah! Eta Saskaitz enparantzan bizi da. — Datu horiek eman eta bitan pentsatu baino lehen «eskerrik asko» esanez joan nintzen. Zortzirak eta laurden ziren. Ez oso berandu. Oraindik denbora nukan nire izebarengana jotzeko. Hemendik galdetuz eta handik erantzunak jasoz nire izeba Joxeparen atarira iritsi nintzen. Atea irakita zegoen eta buzoietan begiratu nuen. Joxepa Elizagarai

Erburu. Horiak ziren nire amaren abizenak: 3. solairua B. Igogailurikez zegoen eta eskaileretatik igo nintzen, oso neketsua egin zitzaidan. Hantxe zegoen atea. Deitu behar al nuen? Hori izango litzateke hoberena? Erantzuna mementu haietan ez nekien baina etsi aurretik deitu nuen. Atea ireki eta nire amarekin antza zuen andere bat ageri zen. Nor nintzen esan nion eta korrika barrurantz, korrika baino korrikago, sartu zen. Zirudenez, sukaldara sartu zen, sardeska edo horrelako zerbaitekin zarata atera zuelako, nik joan behar nuen, baina bapatean han zegoen nire izeba, nire aurrean.

— Nola oroituko naizen galde-tuko diozu zeure buruari, baina hango neska batek esan zidan. Neure ahizparengana eramane behar nauzu. Autobus geltokira joan ginen eta Joxepak nire txartela ordaindu zuen. Oso justu iritsi ginen baina bederatziak laurden gutxitan autobusa hartu genuen. Hamarretarako etxean geunden, nik ez nekien deitu ala ez, baina pasatu nuena iragan ondoren hori ez zen ezer.



BASAJAUN

Oraingo dela egun batzuk, euskal talde ekologistak eta Greenpeace, denok batera, erresiduo industrialek betetako untzi baten aurka kanpaina bat zabaldu dute.

Untzi honek Euskal Herrian kokaturiko enpresa batean utziko ditu erresiduoak, ekologistek zerbait ez badute lortzen. Bertan birziklapen antzeko prozedura industrialak hasiko da hauts hauekin. Oso argi dago ez dela behar kanpoko erresiduorik honera ekartzea, Euskal Herrian nahiko erresiduo bait ditugu birziklatzeko.

Egia da ba, dirua ateratzeko denak elkartzen direla mugida ekologikora, bere poltsikoak betetzeko eta ez arazo ekologikoei irtenbide garbiak emateko.

ASER enpresak badu lana Euskal Herrian, gure herriko industrietan nahiko hauts eta erresiduo sortzen dira, beste tokietatik ekartzeko. Prozedura hau nahiko usainkorra da; askoz ere merkeago eta azkarragoa da gure ibai eta itsasoetan, mendi eta zelaietan botatzen direnak edo biltegietan aurkitzen direnak birziklatzea.

Zer gertatzen da? Hemengo enpresak ez daudela legalki behartuta beren erresiduoak birziklatzera! Orduan, argi dago euskal gobernuak Ingurugiro sailak lan egokiena hemengo enpresek sortutako erresiduoei zer egin behar duen azaltzea duela. Zeren ez dago ondo bere jokarekin jarraitzea, orain arte egin duen bezala.

Euskal taldeak —Eguzki, Eki, Basajaun eta abar— bere lanean txalagarriak dira.

Jenero Xumekoak

Harry Zikina, etxean USA, kanpoan otso.

Harry Zikina, Doakionak eskatuta nahiz arauz—kontrako egoeraren bat ezagutu dezanean bera kabuz, ekin ahal izango dio argipideketari. Harry Zikinaren xede edo eginkizun nagusia hirikideak gaizkileen maltzurkeria eta poterearen gehiegikeria eta utzikeriaren aurrean babestea da. Harry Zikinaren Kexa aurkezteak ez du abokatu bitartekotza beharrik izango. Egia esan, Harryk bere aurpegia ez zuela berriro garbiyu behar erabaki zuenez geroztik, mundua besterik ez da.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

A L L P O K K O X U R I
U R Z E T A Z R Z D U R
Z M G A R I S O A I N U
T U E I H A X L Z X O R
R N N X Ñ E T O I T A R
U I B I H A N E Z M R E
Z A E Z T O N E T S E A
I I D S J Z E O H A Z L
A N X A T B I G U R I A
I Z I E I K Z U M A N U
B T U I B I D A U R R E
Z M N N E I O G R U T I

LETRA
ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Gesalatz ibarrean dauden herriguneeen izenak. Herrigune hauen izenak ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

Zaharrak berri

Elur—urte, patxaran urte.
Ultzama

Bart a ze perretxikue arrapatu zenuen!. A ze mozkorra harapatu zenuen atzo.

Baztan.

Gorak:

— Ez ezazu nirekin hizketan denborarik gal, gorra naiz eta.

— Ez nintzen zurekin ari... Txikiea mastikatzen ari nintzen.

Bizi Bizian

Ezkutuko indarren xarma

Tarota, astrologia, kristalezko bola, kafe hondarrak... Batzuentzat ezezaguna bezain erakargarria gertatzen beste batzuentzat ezkutuko indarren mundua. Esoterismoari lotutako gaian diahrdutenak hogeitamarretik gora dira Nafarroan eta ez dute bezero faltarik. Gehienek 2.000 pezetatik (100 libera) kobratzen dute zerbitzuko eta arreta eskaintzen dute magia baino gehiago. Konjuroak, edabeak eta errito ilunak ipuinetan bakarrik aurki ditzakegu dagoeneko. XXI. mendeko 'sorginek' zerikusi gutxi dute garai batean Zugarramurdiko kobazulotan ake-larrea egiten zutenekin. Orain praka bakeroak jazten dituzte eta 'Winston' erretzen dute. Itxura ezezik, beren sinesmenak ere aldatu egin dira. Jadanik ez dute fede itsurik egiten dutenarengan: patua norberak lantzen duela eta beraiek bide batzuk baino ez dituztela proposatzen diote. Jendeak diru arazoak eta zoritarreko amodioak kontatzen dizkiete eta beraiek lagunaren edo psikologoaren hutsunea betetzen saiatzen dira, aholkuak beren 'botereen' xarmaz apainduz.

A.A.-A.U. / IRUNEA

Txaro Zabaletak Burlatan duen gelatxoan sartzean normaltasun itxurak harritzen zaitu gehien. Literaturaren eraginez edo, sorgin antzeko norbait espero duzu, baina zure aurrean hogeitamar urte inguruko emakume arrunta agertzen da, ezpainetan zigarroa duela. Gelan ere arretaz begiratu behar duzu Txarok astrologia eta tarotarekin zerikusirik duela asmatzeko; zenbait liburu eta bizpahiru txartelek bakarrik adierazten dute bere zale-tasuna.

Mahai gainean zapitxoak jarri eta karten dantza hasten da. Hamabi karte —astrologi zeinuko bana— etorkizun beltza iragartzen diote Txarok parean duenari: «Barne krisi gogorra jasango duzu, lagunarekin daukazu hurremanak ez dauka irtenbiderik, bukatu egingo da eta...zer ikusten dut? Agian abortu bat». Ez da hasera alai, baina, dena den, ez kezkatzeko esaten du Txarok, «gure patua ez bait dago alde aurretik erabakita. Zorionez, eskatasunak badu zer esana eta norberak hartzen duen norakoak egiten du bizitzaren bidea».

Iritzi berekoa da Nieves Diego. Kalaluniar honek denetarik egiten du bere etxean, Iruñeko Mendebaldeko auzoan: eskua irakurri, kartak bota, kristalezko bola edo kafe hondarren bidez etorkizuna asmatu... Berak ere ez du uste patua aldaezina denik, baina zinez sinesten du ezkutuko indarren, «zientzia dira eta».

Nieves orain hogeitau urte hasi zen tarotarekin eta bere gelatik mota guztietako jendea pasa dela dio: «Abokatuak, politikariak, unibertsitateko irakasleak, kul-



Txaro Zabaletari Nuriak erakutsi zion astrologiaz eta tarotaz dakiena. Nuri Indian dago orain. Txarok berriz Burlatan daukan dendaren atzekaldean kartak botatzen dizkio bertara hurbiltzen den edonori. OSKAR

turako jendea gehienbat, baina, noski, prostitutei edo droga arazoak dituztenei ere ez zaie aterik ixten». Magia beltzaren bila doazenei bakarrik debekatzen die sarrera Nievesek: «Behin emakume bat etorri zitzaidan, senarrarekin gaizki konpontzen zela esanez, haren heriotza eragin nezala eskatzeko. Senarrarengandin banantzeko esan nion eta kalera bidali nuen». Nafarroan ba omen da magia beltza, budua orratzez josiz norbaiti zoritxarra dakarkiona. Ez dela txantxetako gauza dio Nievesek, «heriotza edo erokeria eragin dezakeelako, baina nik ez dut horrekin zerikusirik, norbaiti kalte eginez gero kalte zure kontra itzultzen dela sinesten bait dut».

Nievesen iritziz, «nafarrak oso sinesberak dira, baina ezjakintasuna handia ere badago. Askok uste du ezkutuko indarrei lotutako gaiak fedearen kontra doazela eta hori ez da egia. Ni neu oso santuzalea naiz eta saio bat hasi aurretik beti eskatzen diot lagun-tza Goikoari».

Bere iragarpen asko bete egin direla dio Nievesek. Esate baterako, Nikaraguako itsasikara gertatu aurretik ikusi zuela ziurtatzen du bartzelonarrak. Hala-ber, udazkenean ospe handiko abeslari bat hilko dela iragarri du, izenik eman ez duen arren.

Hala ere, iragarpenak txarrak direnean kontu handiz ibili behar dela uste du Nievesek, «edonoren bizitza honda dezakezu eta».

Behin, nahi gabe, bere heriotza ikusi omen zuen kristalezko bolan: «Badakit zortzi edo bederatzireteko bizitza gelditzen zaitela eta ahal dudana gozatzen saiatzen naiz. Baina jende guztiak ez du filosofia horrekin jasotzen bere heriotzaren iragarpena eta, horregatik, etikoa behar duzu izan lanean».

Ezkutuko indarrek dihardutenek ere badute bizitza soziala: «Joan zen larunbatean mundu guztiko sorginek akelarrea egin zuten Lleidan. Ezin izan nuen joan eta sentitu nuen, ikustekoak izaten dira eta, jende guztia dantzan munduan bakea izan dadin eskatzeko». XX. mendekoak ez dira, ez, txikitako ipuinetan erakusten zizkiguten sorginak.

Psikologiatik hurbilago

A.U. / IRUNEA

Txaro eta Nievesen lanak, beraiek aitortzen dutenez, magia baino psikologia gehiago eskatzen du. Jendeak ez du beste munduko gauzik eskatzen, norbait bere arazoak entzun ditzala baizik. «Izugarrizko inkomunikazioa nabaritzen da —Txaroren esanetan—, jendeak ez daki entzuten eta norabiderik gabe dabil».

Galduta dabilzan horiek apai-zengana jotzen zuten sasoi batean, baina gaur egun ez dute aitortpena elizan egiteko joerarik eta psikologoak burutik zeharo jota daudenentzat direla uste dute oraindik. Tarotak, astrologiak, etabarrek erdibideko irteera eskaintzen die: kezak, beldurrak eta zalantzak adierazteko aukera dute eta, trukean, etorkizunerako argi piskat eskatzen dute.

Jendeak diru arazoak eta amodiozkoak planteatzen ditu gehienbat: «Mundu guztiak jakin nahi du zer gertatuko den bere kontratuarekin edo, langabezian daudenak, ea lanposturik aurkituko duten galdetzen dute. Maitasunak ere makina bat buruhauste sortzen ditu; gazteenak maiteminduta daudelako etortzen dira, ezkonduak, berriak, elkar ulertzen ez direlako».

Horregatik, Txaro eta Nievesen gelak psikologi kontsulta bihurtzen dira sarritan. «Nik giza laguntza gisa ikusten dut nire lana —dio Txarok—, hona etortzen denari nondik nor joan behar duen erakusten saiatzen naiz». Hori dela eta, jendea ez zaio gehiegi axola egindako iragarpenak betetzen direnentz. Berdin berdin itzuliko dira, norbait arretaz entzun ditzan, ordu erdiz eta ordainduta bada ere.



Kristalezko bola irakurtzen duela hamabi urte hasi zen Nieves. ARTXIBOA

Iñaki Ibon Garitonaindia

.....Abeslaria

«Euskal rockak ez dauka etorkizunik»

AINHOA ARROIABE / RUNA

EGUNKARIA.—Abenduan Durangoko azokan disko berria kalera ondoren bananduko zaretelako zurrumurrua hedatu da. Egia al da?

GARI.—Disko berriari buruz ezin dizut gauza handiegirik esan. Durangoko azokan kalera-tuko dugu eta ondoren Euskal Herriko hiriburuetan aurkezpena egiteko asmoa daukagu. Izenburua zein izango den ezin dizut esan, oraindik zehaztu gabe bait dago. Zurrumurru horri buruz ezin dizut ezer esan. Dena den, gure etorkizuna garbi dagoela uste dut.

EGUNKARIA.—Hertzainak, Zarama, Delirium eta beste talde batzuk roka euskaraz abesten aitzidariak izan zineten. Egun, sortu berriak diren taldeetan zuen eragina somatzen da. 'Klasiko' bilakatu zaretela uste al duzu?

GARI.—Hori ez da horrela. Talde berri asko sortu dira eta nik pentsatzen dut eragina normala dela. Dena den, mobida hori publikoak ikusten du guk baino hobeto. Gu beste dinamika batean sartuta gaude eta ez dugu gauza horiek gehiegi ikusten. Niretzat orain badaude talde pare bat edo hiru, euskaraz kantatzen dutenak eta beste mobida, irudi eta jarrera bat daukatenak. Gainera gazteak dira eta gogoz ikusten zaie. Garbi dago, gu gauden puntuan pixkanaka talde horiei leku utzi behar diegula.

EGUNKARIA.—Azken bolada honetan euskaraz abesten duten musika talde berri anitz sortu dira. Su ta Gar, SS 77, E.H. Sukarra eta abar. Horrelako eskaintza zabalarekin nola ikusten duzu eus-

kal rockaren etorkizuna?

GARI.—Euskal musika oso gaizki dago. Aurrera jarraitzeko azpiegitura bat lortzen eta mantentzen saiatu gara musika arloan mugitzen garenok. Baina oso zaila da euskal rock talde bat aurrera ateratzea, bere mobida beste leku batzuetara zabaltzea eta mantentzea. Gure kasua halakoxea da, gure merkatua oso txikia eta itxia da.

EGUNKARIA.—Orduan euskaraz abestea muga edo traba bat da?

GARI.—Euskaraz kantatzeak bakarrik Euskal Herrian mugitzea esan nahi du. Euskaldunok atzerrian jotzeko aukera daukagu, baina arazoa honako hau da: ez dago bide bat, ez bakarrik komertzialki, baita azpiegitura aldetik ere. Kanpora irtetea posible da, baina irteerak mantentzea eta beste kanal batzuk irekitzea oso zaila da. Estatuan talde euskaldunok dauzkagun problemak izugarriak dira. Euskarak dena oztopatzen du. Hemen bertan, Euskadin bertan ze publiko daukagu? Oso txikia.

EGUNKARIA.—Euskaraz kantatzeak ekartzen dituen arazo hauek kontutan hartuta, nolakoa izango da euskal taldeen etorkizuna?

GARI.—Ez dago etorkizunik. Behintzat gauzek diren bezala jarraitzen badute.

EGUNKARIA.—Duela gutxi Kuban egon zara. Zer-nolako egoera bizi da Kuban?

GARI.—Zortzi hilabete daramatzate periodo berezian eta egoera oso aldatua dago. Garraioa, jana...nahiko larri dabilta. Ni abuztuan egon nintzen, Habana turistaz josita zegoen eta giroa penagarria zen. Penagarriena

Hertzainak, duela zortzi bat urte jaiotako 'euskal rock erradikala' delakoaren aitzindarietako bat izan da. Sortu zenetik gaur egun arte bilakaera sakona izan du, musikari dagokionez. Hasierako doinu zaratsuen orde, biolin eta

marakaz lagunduriko musika xarmangarri eta exotikoa eskaintzen dute gaur egun. 'Rondako Kontzertuen' barnean Zizur Nagusian izan ziren joan zen astean eta Garik, taldeko abeslariak azken gorabeheren berri eman zигun.



Euskal rocka egoera txarrean dago Gariren ustez.

Euskarak dena oztopatzen du. Hemen bertan ze publiko daukagu? Oso txikia.

mendu sutsu hori, herria aurrera ateratzeko gogoa. Handik etortzean eta Rojoren deklarazioak irakurri nituenan kriston kolpea jaso nuen. Han, giro nazionalista gogor batean murgildu naiz, jendea prest zegoen beren herria aurrera ateratzeko. Hona etortzean, zer falta den, zertan garen, galdetzen diozu zeure buruari.

EGUNKARIA.—Musikaren munduan irudia funtsezkoa da. Ez al zara 'gizon objektu' sentitzen?

GARI.—Ni beti neskaz inguratutik nagoela gezurra da. Euskadi oso txikia da eta musikan maila bat lortzeak gauza horiek dakartza. Baina hori profesioan dagoen beste lan bat da, autografoak sinatzea eta fansekin kontzertu baten ondoren egotea musiko baten lana da. Ni 'gizon objektu' sentitu naiz hitzaldi bat emateko deitzen didatenean. Politikari buruz jendaurrean hitz egitea ez zait batere gustatzen.

EGUNKARIA.—'Aitormena' abestiari buruz zenbait iritzi dau-de. Neska bati, droga, alkohola edo eta ikuslegoari zuzendurik dagoela diote. Nori zuzenduta dago?

GARI.—Amodiozko kanta bat da baina ez neska bati botatakoa baizik eta geuretzat egina.

hainbat euskaldun, bai zahar, bai gazte, 'jinetera', puta edo putokin kriston numeroak muntatzen ikustea izan da. Oso deskontentu etorri naiz Habanatik. Dena den, zortea eduki dut, diru pixka bat eraman genuen eta barnean ibiltzeko aukera izan dut eta hor beste Kuba bat ikusten da. Jendea deskontentu dago oso bolada txarra igarotzen ari direlako, baina

eurek esaten duten bezala: 'guk ez daukagu federik, kristauak ez garelako, baina itxaropena badugu' eta hau beharrezkoa da nire ustez. Honekin batera somatzen den sentimendu abertzale sutsua ere aipagarria da. Gure herrian galdu dugun sentimendua.

EGUNKARIA.—Zer ekarriko zenuke Kubatik Euskal Herrira?

GARI.—Abertzaletasun senti-

NOSKI
JATOR

ZVLDI EROA

